

1. ARBIZU EZAGUTZEN

Arbizun gaude. Arbizu Arañazko eskualdean dago eta Arañaz eskualdeak hartzen ditu bada Arbizu, Etxarri eta Ergoiena. Eta Ergoienaren barnean daude bada hiru herri: Dorrao, Lizarraga eta Unanu.

Arañaz eskualdea, eta Arbizu bera, noski, dago bi mendi-lerroren artean; alde batetik, Aralar eta, bestetik, Beriain. Eta Arbizu ez dago Iruñetik oso urruti.

Nire etxearen aurreko aldean, garai batean taberna izaten zen etxea dago. Eta, atzeko aldean, berriz, dago eliza eta Elizaren atzeko aldean, frontoia. Eta ezkerreko aldean, berriz, dago Arbizuko etxerik zera, altuena. Arbizuko Dorretxea deitzen zaio.

Ni Arbizukoa naiz eta Arbizun Konde zaharren etxekoa. Eta Arbizuko beste etxe batzuk bada dira: Kafearen etxea, Ostatuko etxea, Erreka ondoa, Ezkerraren etxea, Harginaren etxea... eta hola beste hainbat izen.

Hemen Arbizun denok euskaraz egiten dugu.

Hemen eguraldia oso hotza eta lainotsua izaten da. Aurreko egunean eduki genuen ilargi eklipsea eta ezin izan genuen ezer ikusi. Gehienetan lainoturik egoten da eta hilabeterik hotzera ilbeltza da. Eta, klaro, euri asko egiten duenez eta hezetasun handia dagoenez, bada basoan arbola asko dauzkagu: pagoak, haritzak, lizarrak, gaztainak, eta horrela beste asko.